Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko irailaren 17a, asteazkena — 177 — Miércoles, a 17 de septiembre de 2025

ZEGAMAKO UDALA

Zegamako Santa Barbara 4 HIE 1 «Erdigunea»ko Xehetasun Azterlanaren behin betiko onespena.

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Santa Barbara 4 HIE 1 «Erdigunea»ko xehetasun-azterlana onesteko espedientea bideratzen ari da. Erkuden Murua Uribe-Etxeberria andreak aurkeztu zuen, Jesus Berasategui eta Maria Rosario Mugicaren ordezkariak, eta 2024ko azaroaren 19ko Alkatetza ebazpenaren bidez hasierako onespena eman zitzaion. Ondoren, jendaurrean jarrita egon zen hogei egunez, dena delako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean –2024ko azaroaren 28ko– 230 zenbakidunean, Diario Vasco egunkarian –2024ko azaroaren 28koa–, eta gure udaleko iragarki-oholean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe horretan alegazio bat aurkeztu da eta udal-teknikariak txostena igorri zuen, 2025eko apirilaren 30ean, ondorio hauekin: alegazioa onartzearen aldekoa. Orobat, udal-zerbitzuek txosten juridikoa igorri zuten, 2025eko ekainaren 3an, ondorio hauekin: alegazioa onartzearen aldekoa.

Horrenbestez, espedientera bildu diren agiriak ikusita, bai eta Hirigintza Informazio Batzordeak igorri zuen aldeko irizpena ere, Udalbatzak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 22.2.c) artikuluan ematen dizkion eskumenak baliatuta, zinegotzi jaun-andreek gaia eztabaidatu ondoren, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa. Aurkeztutako alegazioa onestea, Edurne Ormazabal Zabaleta andreak jendeari argibideak emateko izapidean aurkeztu baitzuen, txosten teknikoan eta juridikoan azaldu diren arrazoiak direla bide. Txostenok espedientean jaso dira, eta erabaki honi atxiki zaizkio arrazoiak emate aldera.

Bigarrena. Santa Barbara 4 Kaleko etxebizitzen eraikinaren xehetasun-azterlana behin betiko onestea; alegia, Zegamako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina garatzen duena. Onespenak aurreko puntuaren arabera onetsi den alegaziotik ateratzen diren aldaketak hartuko ditu.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta, erabakian jaso diren hirigintza-arauekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratzeko agintzea. Era berean, Gipuzkoako foru-administrazioari helaraziko zaio, batetik, behin betiko onespenari buruzko erabakiaren jakinarazpena; bestetik, behin betiko onetsi den hirigintza-tresnaren alearen kopia bat, behar bezala legeztaturik, eta hura osatzen duten plano eta agiri guztiak ere bai, Udal Idazkaritzaren eginbidea behar bezala jarrita; eta, azkenik, bideratu den espediente osoaren kopia bat, erregistratu eta gordailuan utz dadin.

Laugarrena. Baimenak, onarpenak eta lizentziak emateko aukeraren etendura kentzea; hain zuzen ere, xehetasun-azterlanak ukitzen duen eremurako erabaki zena, hasierako onespenari buruzko ebazpenean.

AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA

Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de Santa Barbara 4 A.I.U. 1 «Centro» de Zegama.

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 10 de junio de 2025, adoptó entre otros el siguiente acuerdo:

Se encuentra en tramitación el expediente de aprobación del Estudio de Detalle del A.I.U. 1 «Centro» de Santa Bárbara 4. Presentada por Dña. Erkuden Murua Uribe-Etxeberria, en representación de D. Jesus Berasategui y Dña. Maria Rosario Mugica, fue aprobada inicialmente por resolución de Alcaldía de fecha 19 de noviembre de 2024. Posteriormente, se sometió a información pública durante un plazo de veinte días, a contar desde el día siguiente al de la publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 230, de 28 de noviembre de 2024, en el Diario Vasco, de 28 de noviembre de 2024, y en el tablón de anuncios de nuestro Ayuntamiento.

En dicho plazo se ha presentado una alegación y el técnico municipal ha emitido informe, con fecha 30 de abril de 2025, en el que concluye: favorable a la aceptación de la alegación. Asimismo, los servicios municipales emitieron informe jurídico el 3 de junio de 2025, con las siguientes conclusiones: favorable a la aceptación de la alegación.

En su virtud, a la vista de la documentación obrante en el expediente, así como del dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa Urbanística, en ejercicio de las facultades que le confiere el artículo 22.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de la Corporación, previa deliberación de los Sres. Concejales, por unanimidad,

ACUERDA

Primero. Estimar la alegación presentada por Dña. Edurne Ormazabal Zabaleta en el trámite de información pública por los motivos expuestos en el informe técnico y jurídico. Dichos informes constan en el expediente y se adjuntan motivadamente al presente Acuerdo.

Segundo. Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle del edificio de viviendas de Santa Bárbara 4, en desarrollo del Texto Refundido de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Zegama. La aprobación contendrá las modificaciones que resulten de la alegación aprobada conforme al punto anterior.

Tercero. Notificar el presente acuerdo a los interesados y ordenar su publicación, junto con las normas urbanísticas contenidas en el mismo, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario de mayor circulación del territorio histórico. Asimismo, se dará traslado a la Administración Foral de Gipuzkoa de la notificación del acuerdo de aprobación definitiva, de una copia del ejemplar del instrumento urbanístico aprobado definitivamente debidamente legalizado y de todos los planos y documentos que lo integran, diligenciada por la Secretaría Municipal, y de una copia completa del expediente tramitado para su registro y depósito.

Cuarto. Levantar la suspensión del otorgamiento de autorizaciones, aprobaciones y licencias que se acordó para el ámbito afectado por el Estudio de Detalle en la resolución de aprobación inicial.

EK\CV GAO-I-2025-06359

Bosgarrena. Alkateari ahalmena ematea erabakitakoa hobekien betetzeko behar diren jardunak gauza ditzan.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Donostiako Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldez aurretik eta nahi izanez gero, partikularrek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Aizarnazabalgo Udalaren Osoko Bilkurari, hilabeteko epean, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi edo ezetsi arte.

Zegama, 2025eko irailaren 11.—Iker Zubeldia Katarain, alkatea. (6359)

Quinto. Facultar al Alcalde para realizar cuantas actuaciones sean necesarias para el mejor cumplimiento de lo acordado.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Donostia, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer Recurso de Reposición ante el Pleno del Ayuntamiento de Aizarnazabal en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación.

Zegama, a 11 de septiembre de 2025.—El alcalde, Iker Zubeldia Katarain. (6359)

EK\CV GAO-I-2025-06359